



TOLOSAKO
UDALA

2021IGBA00015

GOBERNU BATZAR IREKIA

2021.07.06

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

**Xabier Balerdi Tolosa
Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Beloso
Patxi Amantegi Zubiria
Jose M^a Villanueva Telleria**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko uztailaren seian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da. Tokiko Gobernu Batzar hau publikoa da, Osoko Bilkurak eskuordetutako ahalmenez baliatuta jardungo duelako. Deialdiaren oinarria hau izan da: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeen buruzkoa (30. artikulua). Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gaitzerrenda:

Jarduneko idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

1. 2021eko ekainaren 22an egindako Gobernu Batzarreko akordio hauek berrestea:

Bertaratu da:

Kristina Pelaez Errazkin

- Tolosako Alondegia plazan zentro gerontologikoa eta aparkalekua, eguneko zentroa eta hirugarren adinekoentzako apartamentu tutelatuak egiteko eta ustiatzeko emakidaren kontratuaren aldaketa, adineko pertsonentzako eguneko arreta zerbitzu berezia eskaini ahal izateko.
- Tolosako parke, lorategi, berdegune eta kaleko zuhaitzen mantentze-lanen zerbitzu-kontratuaren azken luzapena, eta prezioaren berrikuspena egitea.

2. Akta hau onartzea: 2021eko

ESKUE025e121-6f5e-4a48-ad2e-f695d7234f01



ekainaren 22ko ohiko bilkurakoa.

1. 2021EKO EKAINAREN 22AN EGINDAKO GOBERNU BATZARREKO AKORDIO HAUEK BERRESTEA:

- **TOLOSAKO ALONDEGI PLAZAN ZENTRO GERONTOLOGIKOA ETA APARKALEKUA, EGUNEKO ZENTROA ETA HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO APARTAMENTU TUTELATUAK EGITEKO ETA USTIATZEKO EMAKIDAREN KONTRATUAREN ALDAKETA, ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO ARRETA ZERBITZU BEREZIA ESKAINI AHAL IZATEKO.**

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren Xedea	Tolosako Alondegri plazan zentro gerontologikoa eta aparkalekua, eguneko zentroa eta hirugarren adinekoentzako apartamentu tutelatuak egiteko eta ustiatzeko emakidaren kontratuaren aldaketa , adineko pertsonentzako eguneko arretarako zerbitzua eskaini ahal izateko.
Unitate sustatzailea	Gizarte Zerbitzuetako Saila
Espedientea	B.10.13/2007/0002 – H1104 (4-11 karpeta) <i>espediente elektronikoa: 2021COBR0001</i>

II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Udaltzako 2006ko abenduaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran, besteak beste, "ZENTRO GERONTOLOGIKOA ETA APARKALEKUA, EGUNEKO ZENTROA ETA HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO APARTAMENTU TUTELATUAK EGITEKO ETA USTIATZEKO KONTZESIOA" izeneko espedientea onartu zuen. Bertan, Baldintza Orokorren Plegua onartu zen eta lizitazioari hasiera eman zitzaion.

Bigarrena.- Aipatutako lizitazioa onartu zenean, baldintza orokorren pleguan aipatzen den bezala, 13/2003 Legea, maiatzaren 23koa, Herri-Lanen Emakida-Kontratuak arautzen zituen, zegoen indarrean; halaber aipatu behar da, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onartzen zuen 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua ere aplikagarria zela, aurrekoak indargabetu ez zituen artikulua guztietan.

Hirugarrena.- Legearekin bat etorrira, aipatutako lizitazioaren iragarkiak Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean (2006/12/30), Estatuko Aldizkari Ofizialean (2007/01/19) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2007/01/05) argitaratu ziren.



Laugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, bi enpresak aurkeztu zituzten euren proposamenak:

- UTE Sociedad Inviza, S.A. y Compañía de Servicios Sociales San Ignacio, S.A.
- UTE Arkaitza, S.A., Arramele Siglo XXI, S.L. y Residencia San Cosme y San Damián, S.L.

Behin jardunbide guztia legearen arabera egin eta gero, 2007ko martxoaren 26an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak, UTE Arkaitza, S.A., Arramele Siglo XXI, S.L. y Residencia San Cosme y San Damián, S.L. (UTE Alhóndiga) enpresari esleitu zion kontratua.

Bosgarrena.- 2007ko apirilaren 4an zegokion kontratua sinatu zuten Tolosako Udalaren eta UTE ALHÓNDIGA enpresaren ordezkariak; eta legearen arabera argitaratu zuten hori aldizkari ofizialetan. Gainera, aipatutako kontratua dokumentu publiko egin zen, Tolosako notario Pedro Elósegui Bergareche jaunak egindako eskrituran, 2009ko 61 protokolo zenbakiarekin.

Seigarrena.- 2008ko azaroaren 19an sarrera izan zuen udal erregistroan, 13702 zenbakiarekin, Ernesto Sáinz Lanchares, Felisa Zuriarrain Carrera eta José Francisco Usabiaga Esnaolak aurkeztutako idatzia, eta bertan hau eskatzen zuten:

(...) es intención de ute alhóndiga, y así se ha transmitido en diferentes ocasiones a ese ayuntamiento, disolverse con la finalización de las obras, de forma que la mercantil San Cosme y San Damián, S.L. con CIF B-20611471 se encargue de la gestión y explotación del complejo gerontológico, en tanto que de la explotación y gestión del parking alhóndiga se haga cargo la mercantil arramele siglo xxi, s.l., con cif b-20934188, ambas componen la UTE ALHÓNDIGA.

Hori guztia kontuan hartuz, 2008ko azaroaren 20an 2062/2008 Alkatetzaren Dekretuaren bidez, eskatutakoa onartu zen termino hauetan:

... Fundamenta dicha solicitud en los siguientes argumentos:

- El artículo 20.4 del contrato referido, establece que: "Ahora bien, si la empresa licitadora pretende gestionar con otras empresas los servicios, estas últimas deberán presentarse en UTE con la licitadora, si bien, para la prestación de los servicios que se conceden podrán desvincularse de ésta, considerándose adjudicatarias del servicio correspondiente..."; para añadir que: "Esta prestación independiente de servicios podrá alcanzar a los siguientes: Centro Gerontológico, Centro de Día, Apartamentos Tutelados, y gestión de Aparcamiento".

- La explotación del parking se llevará a cabo por la mercantil Arramele Siglo XXI, S.L., y la explotación del complejo gerontológico se llevará a cabo por la mercantil San Cosme y San Damián, S.L.

A este respecto, ha de señalarse que, efectivamente, el contrato suscrito en fecha 4 de abril de 2007, contemplaba la mencionada segregación de empresas pertenecientes a la UTE referida.

En consecuencia, esta Alcaldía

ESKUE025e121-6f5e-4a48-ad2e-f695d7234f01



RESUELVE:

Primero.- Admitir la solicitud formulada por el representante de la UTE Alhóndiga, en fecha 19 de noviembre del 2008, y, por tanto, la desvinculación de la empresa Arramele Siglo XXI, S.L., de la UTE referida.

Segundo.- Considerar adjudicataria del servicio de explotación de los aparcamientos de la Alhóndiga a la empresa mercantil Arramele Siglo XXI, S.L., quien se subroga en los derechos y obligaciones del contrato suscrito entre UTE Alhóndiga, en fecha 4 de abril de 2007.

Tercero.- Establecer que la empresa Arramele Siglo XXI, S.L., debe depositar en este Ayuntamiento la correspondiente fianza definitiva....

Zazpigarrena.- 2008ko urriaren 23an, aparkamendu publikoetako zinegotzi delegatuak proposamen bat aurkeztu zuen, non kontratuaren aldaketa eskatu zuen. Aldaketa haren funtsa zen lizitazioan aurreikusitako 248 plaza irekietatik 151 plaza ireki, 8 ireki trastelekuekin eta 61 plaza itxi izatera pasatzea, bezeroen eskaerak asetzeko. Hirigintza, Obrak, Auzoak eta Herri Mantenimenduko Batzordeak 2008ko azaroaren 21ean aho batez egin zuen aldaketa horren alde, eta 2008ko azaroaren 25ean egindako Ohiko Osoko Bilkurako 9. puntuan, Udalbatzak aho batez onartu zuen aldaketa hura. Hemen aldaketa haren akordioa:

9.-Aprobación de la propuesta para cerrar los garajes de la Alhóndiga.

Analizada la propuesta para modificar las condiciones correspondientes al expediente relativo a la concesión de construcción y explotación de aparcamientos y centro gerontológico, centro del día y apartamentos tutelados para personas mayores, que fue aprobado por el Pleno del Ayuntamiento, con fecha 27 de diciembre de 2006, y visto el informe realizado por el Arquitecto municipal, previo dictamen favorable de la Comisión de Urbanismo, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad,

ACUERDA:

Primero.- Aprobar la modificación de la concesión antes referida y del Pliego de Condiciones que la regula, en lo que se refiere a la 2 planta de garajes.

Segundo.- Establecer un total de 220 plazas de garaje para la planta 2ª, quedando distribuidas de la siguiente forma:

1º.- 151 abiertas (de 2,40 x 5,00 m).

2º.- 8 abiertas (de 2,40 x 5,00 m), con trastero ,de dimensión variable.

3º.- 61 cerradas, con unas dimensiones de 3,50 x 5,00 m.

Tercero.- Establecer el precio de superficie útil para plaza cerrada en 1.736,11 €/m².

Cuarto.- Establecer el precio de superficie útil para el trastero de 1.658 €/m².

Quinto.- Requerir a la concesionaria que proceda a la apertura de un nuevo plazo, para que los interesados puedan solicitar los nuevos garajes cerrados.

Sexto.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Urbanismo y a la empresa adjudicataria.



Aldaketa hura legearen arabera jakinarazi zitzaion emakidadunari eta 2009ko otsailaren 12an zegokion kontratua sinatu zen.

Zortzigarrena.- 2009ko azaroaren 16ko 2176/2009 Alkatetza Dekretuaren bitartez, Tolosako Udalak Alondegian lurpeko aparkaleku bat irekitzeko baimena eman zion ARRAMELE SIGLO XXI, S.L. enpresari.

Bederatzigarrena.- 2010eko azaroaren 15ean, lurreamendi egoitzako zuzendariak igorritako txostenean, arrazoi publikoak zirela eta, aipatutako kontratua aldatzeko eskatu zuen, Foru Aldundiko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan eskatutakoan oinarrituta.

Foru Aldundiaren eskaera horren ondorioz, hainbat txosten igorri ziren Udalean. Eskaera eta egin zen aldaketa honetan justifikatu zen:

La Diputación Foral de Gipuzkoa, entidad competente para autorizar la homologación de centros residenciales para la tercera edad, requirió a UTE Alhóndiga a introducir una serie de modificaciones en el edificio de la residencia y centro de día con respecto al proyecto inicial, que hicieran posible la obtención de la autorización correspondiente y la concertación posterior de las plazas de la misma.

Aldaketa hura bi arrazoitan oinarritzen zen: alde batetik, erabiltzaileen profilak egokitzeko, eta bestetik, berriz, Gizarte Zerbitzuen lege berrira egokitzeko.

UTE Alhóndigaren proposamena hau zen: 40 plaza (19 apartamentu bikoitz eta 2 bakarrekoak) eta aldaketaren ondorioz, apartamentuak 33 izatera pasa ziren eta plazak, guztira, 42. Aldaketa horrek eraikitako azalera 44 m² handitu zuen, plazak 128tik 117ra jaitsi zituen eta egoiliarren tipologia aldatu egin zuen. Horren ondorioz, diru-sarrerak 357.939,05 euro jaitsi ziren eguneko zentroan eta 142.588,01 euro apartamentuetan; egoitzan, berriz, diru-sarrerak 212.229,25 euro igo ziren.

Zerbitzuen egikaritzean ere aldaketak egon ziren kontuhartzailearen txostenaren arabera, baina aldaketa garrantzitsuenetariko bat eraikinaren gain-kostuan egon zen (1.898.840,00 euro) baina kostu horren zati bat (855.000,00 euro) altzairuaren gainkostuarengatik izan zen. Beraz, UTEaren arabera, kontratuaren aldaketa 1.270.000,00 eurokoa izan zen, baina Diputazioak 1.293.103,45 euroko dirulaguntza eman zuen; udal arkitektoaren arabera, berriz, aldaketaren zenbatekoa 400.000,00 eurokoa izan zen.

Horiek horrela, Udalbatzak 2010eko azaroaren 30ean egindako osoko bilkuran, besteak beste, kontratuaren aldaketa onartu zuen. Horrenbestez, 29.704,00 euroko bermea jarri behar izan zuen esleipendunak udal-diruzaintzan eta 2010eko abenduaren 14an zegokion kontratua sinatu zen.

Hamargarrena.- 2010eko abenduaren 23an sarrera izan zuen udal erregistroan 16461 zenbakiarekin, Ernesto Sáinz Lanchares eta José Francisco Usabiaga Esnaola jaunek egindako eskaerak. Bertan, hau eskatu zuten:



(...) es intención de UTE ALHÓNDIGA, y así se ha transmitido en diferentes ocasiones a ese Ayuntamiento, disolverse con la finalización de las obras, de forma que la mercantil SAN COSME Y SAN DAMIÁN, S.L. se encargue de la gestión y explotación del Complejo Asistencial (Residencia, Centro de Día y Apartamentos Polivalentes), en tanto que de la explotación y gestión del parking Alhóndiga se ha hecho cargo ya, con autorización de ese Ayuntamiento, la mercantil ARRAMELE SIGLO XXI, S.L., con CIF B-20934188, y que compone la UTE ALHÓNDIGA.

Hori guztia kontuan hartuz, 2011ko otsailaren 17an, 261/2011 Alkatetza Dekretuaren bidez, eskatutakoa onartu zen termino hauetan:

... Fundamenta dicha solicitud en los siguientes argumentos:

- El artículo 20.4 del contrato referido, establece que: "Ahora bien, si la empresa licitadora pretende gestionar con otras empresas los servicios, estas últimas deberán presentarse en UTE con la licitadora, si bien, para la prestación de los servicios que se conceden podrán desvincularse de ésta, considerándose adjudicatarias del servicio correspondiente...", para añadir que: "Esta prestación independiente de servicios podrá alcanzar a los siguientes: Centro Gerontológico, Centro de Día, Apartamentos Tutelados, y gestión de Aparcamiento".

- San Cosme y San Damián se encargará de la gestión y explotación del complejo asistencial, en tanto que la explotación y gestión del parking ha sido asumida por Arramele Siglo XXI, SL.

A este respecto, ha de señalarse que, efectivamente, el contrato suscrito en fecha 4 de abril de 2007, contemplaba la mencionada segregación de empresas pertenecientes a la UTE referida.

En consecuencia, esta Alcaldía

RESUELVE:

Primero.- Admitir la solicitud formulada por el representante de la UTE-Alhóndiga y, por tanto, la desvinculación de la mercantil San Cosme y San Damián, SL, de la UTE referida.

Segundo.- Considerar a la mercantil San Cosme y San Damián, SL, adjudicataria del servicio de explotación del centro gerontológico, centro de día y apartamentos tutelados para personas mayores, en los términos del contrato de fecha 4 de abril de 2007, con la modificación del mismo, de fecha 14 de diciembre de 2010, quedando, por tanto, subrogada en los derechos y obligaciones derivados de dichos contratos.

Tercero.- Establecer que la empresa San Cosme y San Damián, SL, debe depositar en este Ayuntamiento la fianza de 125.000 euros, en el plazo de 20 días desde la presente notificación.

Cuarto.- Dar cuenta de la presente resolución al representante de la UTE-Alhóndiga, al de la mercantil San Cosme y San Damián, SL, y al departamento de Intervención.

...



Hamaikagarrena.- Aurrekoaren ondorioz, Udalak San Cosme y San Damián, S.L. enpresari errekeritu zion 125.000 euroko bermea jartzeko. Enpresak finantza-merkatuaren zailtasunak zirela eta, ezinezkoa zela esan zuen eta hasieran jarritako abala beste hiru abal berriekin ordezkatzeari eskatu zuen. 2011ko azaroaren 24an, 2011/2188 Alkatetza Dekretuaren bidez, eskatutakoa onartu zen.

Hamabigarrena.- 2014ko apirilaren 30ean, Gizarte Politikako foru diputatuak, foru agindu baten bidez, Residencia San Cosme y San Damián, S.L. enpresari jarduera baimena eman zion Complejo Asistencial Uzturre zentroak jarduerari hasiera eman ziezaion. Arauan onartzen zen gehienez 93 lagunentzako tokia izango zela, eta horietatik 16, 5. solairuan kokatu beharreko unitate psikogeriatrikoak izango zirela.

Hamahirugarrena.- 2015eko irailaren 3an, sarrera izan zuen udal erregistroan 6452 zenbakiarekin, Ernesto Sáinz Lanchares jaunak, Residencia San Cosme y San Damián, S.L.-COMPLEJO ASISTENCIAL UZTUREREN izenean eta ordezkapenez, bere zuzendaria denez, aurkeztutako idatziak. Bertan, eskatu zuen plaza kopurua handitzea, Uzturre zentroan, egoitza geriatrikoa eta eguneko zentroa alde batera utzirik, URTMS unitateak 25 plaza izateko aukera izan zezan. 2015eko azaroaren 3ko 2015/1762 Alkatetza Dekretuaren bidez, eskatutakoa onartu zen.

Hamalauugarrena.- 2015eko urriaren 13an sarrera izan zuen udal erregistroan 7443 zenbakiarekin, Ernesto Sáinz Lanchares jaunak eta Felisa Zuriarrain Carrera andreak UTE ALHÓNDIGA enpresaren izenean eta ordezkapenez aurkeztutako idatziak. Bertan hau eskatu zuten:

(...) una resolución expresa sobre el cambio de titularidad en la concesión de la cafetería y centro de transformación (...)

Aurrekoaren ondorioz, 2015eko azaroaren 19ko 1872/2015 Alkatetza Dekretuaren bitartez, hau erabaki zen:

En fecha 13 de octubre del 2015, Ernesto Sainz Lanchares y Felisa Zuriarraian Carrera presentan un escrito en el solicitan al Ayuntamiento una resolución expresa sobre el cambio de titularidad de la concesión de la cafetería y centro de transformación, sitios en el Centro Gerontológico y servicios dotacionales en el área T-6 "Edificios públicos San Francisco", de Tolosa.

A estos efectos, ha de señalarse que en fecha 4 de abril del 2007, se suscribió un contrato entre la U.T.E. Alhóndiga y el Ayuntamiento de Tolosa, para la redacción del proyecto de ejecución, construcción y explotación de apartamentos tutelados para personas mayores, así como su equipamiento y mantenimiento. En el mismo, las concesiones de la cafetería y el centro de transformación se entienden incluidas en el referido contrato, si bien no se hizo una mención expresa a ellas.

En fecha 17 de febrero del 2011, mediante Decreto de Alcaldía 261/2011, se resolvió admitir la desvinculación de la mercantil San Cosme y San Damián, S.L., adjudicataria del servicio de explotación del centro gerontológico, centro de día y apartamentos tutelados



para personas mayores, en los términos del artículo 20.4 del contrato referido en el párrafo anterior.

Ahora, los solicitantes de la petición manifiestan que si bien la cafetería y el centro de transformación quedan integrados en el edificio referido, el Registro de la propiedad exige una resolución expresa para admitir el cambio de titularidad en la concesión de dichos bienes, por lo que los solicitantes piden al Ayuntamiento una resolución expresa sobre el cambio de titularidad de los mismos en la concesión a favor de la mercantil San Cosme y San Damián, S.L.

En base a estos antecedentes, la Alcaldía

DECRETA

Primero.- Otorgar a la mercantil San Cosme y San Damián, S.L., un plazo de alegaciones de diez días, contados desde el día siguiente a la notificación de la presente resolución, a fin de que realice las que estime oportunas, en relación a la adscripción a la concesión formalizada con la U.T.E Alhóndiga en fecha 4 de abril del 2007, de la cafetería y el centro de transformación.

Segundo.-Comunicar a la referida empresa que, si en el plazo otorgado al efecto no realizara ninguna alegación, se entenderá otorgada por ésta la autorización de adscripción referida, y por tanto el cambio de titularidad de la concesión sobre la cafetería y centro de transformación a favor de la mercantil San Cósme y San Damián, S.L.

Hamabosgarrena.- 2016ko urtarrilaren 29an sarrera izan zuen udal erregistroan 1019 zenbakiarekin, José Francisco Usabiaga Esnaola jaunak eta Felisa Zuriarrain Carrera andreak Residencia San Cosme y San Damián, S.L. enpresaren izenean eta ordezkapenez aurkeztutako idatziak. Bertan hau eskatu zuten:

Que por medio del presente escrito tenemos a bien poner en conocimiento de ese Ayuntamiento que, efectivamente, a la vista de que el actual titular de la explotación del centro gerontológico, centro de día y apartamentos polivalentes es Residencia San Cosme y San Damián, S.L. por Decreto de Alcaldía 261/2011, mostramos conformidad al hecho de que se entienda también a Residencia San Cosme y San Damián, S.L. como titular en la actividad de CAFETERÍA y CENTRO DE TRANSFORMACIÓN.

Aurrekoaren ondorioz, 2016ko otsailaren 17ko 290/2016 Alkatetza Dekretuaren bitartez, honako hau erabaki zen:

(...)

En base a estos antecedentes, la Alcaldía, mediante Decreto 1872, de 19 de noviembre del 2015, otorgó a la mercantil San Cosme y San Damián, S.L., un plazo de alegaciones de diez días, contados desde el día siguiente a la notificación de la presente resolución, a fin de que realizara las alegaciones que estimara oportunas, en relación a la adscripción a la concesión formalizada con la U.T.E Alhóndiga en fecha 4 de abril del 2007, de la cafetería y el centro de transformación.



En el plazo concedido al efecto la mercantil referida no ha realizado alegaciones.

En base a ello, esta Alcaldía

DECRETA

Primero.- Autorizar la abscipción de la cafetería y centro de transformación a la concesión formalizada en fecha 4 de abril del 2007 entre el Ayuntamiento de Tolosa y la U.T.E.Alhóndiga.

Segundo.- Autorizar, por tanto, el cambio de titularidad de la concesión sobre la cafetería y centro de transformación a favor de la mercantil San Cósme y San Damián, S.L.

Hamaseigarrena.- 2011ko apirilaren 27an sarrera izan zuen udal erregistroan, 5513 zenbakiarekin, Felisa Zuriarrain Carrera andreak ARRAMELE SIGLO XXI, S.L. enpresaren izenean eta ordezkapenez aurkeztutako idatziak. Bertan hau eskatu zuen:

(...) se tenga por solicitada la subrogación de la SUBCOMUNIDAD DE USUARIOS DE LA PLANTA SÓTANO -2 (RESIDENTES) en los derechos y obligaciones que a partir de esta fecha se deriven para ARRAMELE SIGLO XXI, S.L. (...)

Aurrekoaren ondorioz, 2013ko ekainaren 10ean izan zuen sarrera udal erregistroan 6917 zenbakiarekin, Miren Arantxa Gabarain Saiz andreak, Garajes de Concesión Administrativa que conforman la comunidad de usuarios de LA ALHÓNDIGA DE TOLOSA elkartearen izenean eta ordezkapenez, aurkeztutako idatziak. Bertan adierazi zuen arazoak zeudela IFZ lortzeko garaian eta Udalari txosten juridikoa eskatzen zion egoera harekin bukatzeko. 2013ko ekainaren 18an Udalak erantzuna eman zioan aipatutako eskaerari.

2013ko azaroaren 28an sarrera izan zuen udal erregistroan 12.618 zenbakiarekin Alhondigako Erabiltzaileen Elkartearen izenean aurkeztutako eskaerak, non honako hau esaten zen:

esta comunidad de usuarios SE NIEGA A RECIBIR LA CONCESIÓN ADMINISTRATIVA en tanto no se solucionen los problemas causados por la entrada de agua en el garaje y el mismo no esté en perfecto estado de uso.

Hamazazpigarrena.- 2019ko uztailaren 2an, Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Saileko arduradunak igorri zuen txosten bat, non "Tolosako udalerrian, adineko pertsonentzako eguneko arretarako zerbitzua eskaintzeko, Uzturre Asistentzia Guneak duen emakida kontratua aldatzeko proposamena" egin zuen. Txosten horretan, jarraian modu laburrean azaltzen diren argudioak eman zituen:

Aztertzen ari garen gaiari dagokionean, kontuan izan behar da Eguneko Arreta Zerbitzuak erabateko zerikusia duela UTE Alhondigarekin hitzartutako emakidaren xedearekin. Beraz, egun zerbitzu horretan eskaintzen denarekin lotura izateaz gain, azpimarratu nahi dira zerbitzu hau Uzturre Asistentzia Gunean bertan eskaintzeak izango lituzkeen onura garrantzitsu batzuk:

- Alde batetik, zerbitzu hau eskaintzeko espazio egokiak eta baliabide interesgarriak



dituzte erakinean, bai irisgarritasun aldetik eta baita baliabide pertsonal eta materialei dagokienean. Eta beraz, inolako moldaketa berezirik egin beharrik gabe eman dezakete zerbitzua, gainkosteak ekidinez eta egun dauden baliabideak eraginkortasunez kudeatuz.

- Bestalde, herriaren erdigunean dago kokatuta, espazio zabal eta irisgarrian, eta adineko pertsonak erabiltzeko joera duten komunitateko hainbat zerbitzuengandik oso gertu: anbulatorioa, komertzioak, banketxeak,... Horrela, zerbitzu horren erabiltzaileei erraztuko zaie komunitatean aktiboki parte hartzea.

- Era berean, zerbitzuari dagokionean, erabiltzaileek esku-eskura izango dituzte Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen beste hainbat zerbitzu, arreta zerbitzu honen osagarriak izan daitezkeenak; esaterako, jangela sozialean jateko aukera izango dute, edo oinarrizko garbitasun beharrak asetzeko zerbitzuak, ile-apaindegia, podologia,... dagokion prezioa ordainduta. Eta horrek hobetuko du onuradunen eguneroko bizi-kalitatea.

- Azkenik, jendartearekin bat egiteko eta harremanak berreskuratzeko aukera garrantzitsua eskainiko zaie zerbitzu honetako erabiltzaileei, eta baita edo berdinaren arteko harreman berriak sortzeko eta aisialdi ekintzak burutzeko aukerak errazteko ere. Eremu horretan Uzturre Asistentzia Guneako erabiltzaileen eta hauen ahaideen joan-etorriez gain, ohikoak dira Iturriza elkarteko erabiltzaileak ere, eraikin berean baitago kokatuta, eta gainera, bertan aisialdirako ekintza desberdinen eskaintza zabala jorratzen dute. Era berean, Emeterio Arrese zentro soziokulturala eta Harizpe elkarteak ere nahiko gertu izango dituzte, eta bertan ere eskaintza zabala dute eskura. Horrek guztiak ahalbidetuko du erabiltzaileak eroso sentitzea eremu honetan, komunitatean aktiboki parte hartzen jarraitzeko motibazio-iturria izango delarik.

Era berean, garrantzitsua da aipatzea 2019ko maiatzaren 6an hasita Uzturre Asistentzia Gunea ari dela eskaintzen Eguneako Arreta Zerbitzua udal honekin hitzartutako zerbitzu-kontratuaren baitan. Hain zuzen ere, zerbitzu honen balorazioaren testuinguruan zerbitzu hau berrantolatze beharraz ohartuta, eskaintza zabaltzeko bide orria aztertu genuen Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Departamentutik gai horretan adituak diren Uzturre Asistentzia Guneako eta Lahar elkartekoen laguntzarekin. Jarraian, beste herri batzuetan eskaintzen ari diren zerbitzuak ezagutu (Usurbil eta Errenteria) eta gure zerbitzu propioa sortzeari ekin genion. Era berean, herritarrekin bildu eta talde pilotua abiarazi genuen, egunero hiru orduz. Zerbitzuak izan duen harrera eta balorazioa oso positiboak izan dira, bai erabiltzaileen aldetik, bai senide zaintzaileen aldetik eta baita profesionalen aldetik ere.

Hemezortzigarrena.- Horiek horrela, eta aipatutako eskaera ikusita, 2019ko urriaren 1ean kontratazio teknikariak, udal idazkariaren oniritziarekin, jarraian modu laburrean jasotzen den lege-txostena igorri zuen:

Aipatutako lizitazioa onartu zenean, Baldintza Orokorren Pleguan aipatzen den bezala, 13/2003 Legea, maiatzaren 23koa, Herri-lanen Emakida-Kontratua arautzen zuena, zegoen indarrean; halaber aipatu behar da, Herri Administrazioen Kontratuei



buruzko Legearen testu bateratua onartzen zuen 2/2000 Errege Legegintza Dekretua ere aplikagarria zela, aurrekoak indargabetu ez zituen artikuluetan.

(...).

Garrantzitsua da hemen aipatzea 13/2003 Legeak, maiatzaren 23koak, Herri-lanen Emakida-Kontratua arautzen zuenak, 249. artikuluan zehazten duena, hori baita txosten honen atzean dagoen aldaketa baimenduko baituena (...)

Beraz, artikulua honek argi uzten du herri-lanen emakidak aldatu daitezkeela eta ez du atalaserik ezartzen horiek gauzatu ahal izateko; aipatutako muga bakarra emakidaren oreka ekonomikoaren mantentzean ezartzen du.

Aipatu bezala, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onartzen zuen 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak 101. artikuluan hau zehazten du orokorrean kontratuen aldaketei buruz: (...).

Bertan aipatzen den 59. artikulua hau zehazten du administrazioaren eskumenei buruz: (...)

Beraz, honen arabera, kontratuaren aldaketaren zenbatekoa kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20a edo 6.010.121,04 euro baino txikiagoa bada, ez da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena behar. Berriz, aldaketaren zenbatekoa kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 10a edo 6.010.121,04 euro baino txikiagoa bada udal kontu-hartzailearen txostena behar da besterik.

Aldaketaren zenbatekoa:	kontratuaren prezioaren % 10	hasierako eta 6.010.121,04 euro baino gehiago	Udal kontu-hartzailearen eta Ogasun Ministerioko Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiaren txostena
	kontratuaren prezioaren %20	hasierako eta 6.010.121,04 euro baino gehiago	Udal kontu-hartzailearen eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena

Aipatzekoa da, gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen zuen 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, Ogasun Ministerioko Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiak (Dirección General de Presupuestos del Ministerio de Hacienda) igorri behar dituen txostenei erreferentzia egiten dioenean, xehetasunak egiten dituela Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren 4. puntuan toki erakundeen kasuan:

Normas específicas de Régimen Local. 4. En los supuestos de modificaciones de los contratos a que hace referencia el artículo 101.3, el importe de 1.000.000.000 de pesetas (6.010.121,04 euros) se sustituirá por el que se corresponda con el 20 por 100 de los recursos ordinarios de la Entidad local, salvo que el importe resultante sea superior a la citada cuantía, en cuyo caso será ésta de aplicación. La referencia de este mismo artículo y apartado a la Dirección General de Presupuestos del Ministerio de Hacienda deberá entenderse hecha a la Comisión Especial de Cuentas en las Entidades locales en que existan. 5. Los consorcios a que se refieren los artículos 57 y 87 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases del Régimen Local, en los



que la participación pública sea mayoritaria adjudicarán sus contratos conforme a lo dispuesto en esta Ley.

Beraz, proposatutako aldaketan hau izan beharko da kontuan:

Tolosako Udalaren errekurtsio arruntak (2019)	26.514.701,27 euro
Errekurtsio arrunten % 20	5.302.940,25
Obra proiektuaren aurrekontua (2007)	13.914.145,00 euro
Atalasea (hasierako prezioaren % 10)	1.391.414,50 euro
Aldaketa honen zenbatekoa	550.000,00 euro
Aurretik egindako aldaketen zenbatekoa	Ez ziren kuantifikatu aldaketak egiterakoan

Aurrekoa aintzat hartuta, pentsa genezake kontrajarri egiten direla, alde batetik, 13/2003 Legeak, herri-lanen emakida kontratuen aldaketei buruz esaten duena, eta bestetik, berriz, 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak kontratuen aldaketei buruz aipatzen duena; lehenengoan, ez baita atalaserik aipatzen, eta bigarreanean, berriz, portzentaje batzuk zehazten baitira.

Hemen aipatzekoa da 13/2003 Legeak (artikulu bakarreko legea), Herri-lanen Emakida-Kontratua arautzen zuenak, 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua osatzeko xedapenak ematen zituela. Beraz, pentsatu genezake, eta hori da hainbat legelarik eta jakitunek iriztitakoa, 13/2003 Legea dela bestearen gaineratik jartzen dena; horrenbestez, herri-lanen emakiden kasuan hau izango litzateke aplikatu beharreko araudia.

(...)

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, idazkari honen irizpidea da 13/2003 Legeak, maiatzaren 23koak, Herri-lanen Emakida-Kontratuak arautzen dituenak, agintzen duela emakida kontratu honetan egin nahi den aldaketan; horrenbestez, ez lirateke aplikatuko arestian aipatutako atalaseak eta portzentajeak, horiek administrazioaren kontratu orokorretarako aplikatuko bailirateke bakarrik.

3.2.- Organo eskuduna

(...)

Horretaz baliatuta, Baldintza Pleguaren 21. artikuluan hau zehazten da: "La adjudicación la realizará la Junta de Gobierno, por delegación del Pleno, de conformidad al artículo 22-4 de la Ley 11/99, de 21 de abril. Asimismo, se delega en dicho órgano la competencia para la modificación o ampliación del contrato.". Beraz, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da kontratuaren aldaketa onartzeko organo eskuduna.

3.3.- Emakidadunaren onespena

Aipatu bezala, Herri Administrazioen Kontratuak buruzko Legearen testu bategina onartzen zuen 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak 101. artikuluan hau zehazten du



kontratuen aldaketei buruz: “2. Las modificaciones del contrato deberán formalizarse conforme a lo dispuesto en el artículo 54.”

(...)

Beraz, aurrekoa kontuan hartuz, emakidadunari jakinarazi beharko zaio kontratazio organoak hartutako erabakia eta ondoren, dagokion kontratuaren aldaketa sinatu beharko da. Hori, Aldizkari Ofizialetan eta Kontratatzailearen Profilean argitaratu beharko da.

4.- ONDORIOAK

Aurreko guztia aintzat harturik, aipatutako Legeetan, Baldintza Pleguan eta kontratuan, eta Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Saileko arduradunak igorri zuen txostena kontuan hartuz, iritzi dezaket arazorik ez dagoela arestian aipatutako kontratuaren aldaketa egiteko, interes orokorreko arrazoiak daudela justifikatu baita eta aurreikuspenen arabera kontratuaren aldaketaren zenbatekoa 550.000,00 eurokoa izango baita epe guztian (55.000,00 euro urtean bost urtez, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin).

Esan bezala, idazkari honen iritziz, eta 13/2003 Legeak, maiatzaren 23koak, Herri-lanen Emakida-Kontratuak arautzen duenak xedatutakoarekin bat etorritik, ez dago aldaketa honetan atalaserik edo aplikatu beharreko gehiengo portzentajerik, 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak aipatutakoak herri-lanen emakida kontratuetan aplikazio zuzena ez baitaude.

Horiek horrela, udal idazkari den honek, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari gaia proposatu aurretik, udal kontu-hartzailearen aldeko txostena beharko du. Beraz, honen bitartez, udal kontu-hartzaileari eskatzen zaio legezko txostena igorri dezala legezkoa den prozedurarekin jarraitu ahal izateko.

Hemeretzigarrena.- Horiek horrela, eta orduko kontuhartzaileak beste irizpide bat zuenez, Udalak AGEM enpresari kontratuaren azterketa juridiko-ekonomikoa eskatu zion. Horrela, 2021eko otsailean “Análisis jurídico del contrato de construcción y explotación de centro gerontológico” izeneko dokumentuaren behin betiko bertsioa aurkeztu zuen enpresak. Errepikapenak saihestearren, dokumentu horretara egiten da erreferentzia zuzena hemen; hala ere, ondorio batzuk jaso dira hemen modu laburrean:

En cuanto a la ampliación del contrato para incluir el servicio de atención diurna, su importe puede determinarse en base al precio del contrato de servicios por el que se presta este servicio actualmente. El precio en la nueva licitación es de 54.000 € anuales (IVA excluido).

Si bien la duración actual del contrato del servicio de atención diurna es de 5 años, prorrogable por otros 5 años más, consideramos que una ampliación de la concesión para incluir este servicio se haría por el periodo que resta de la misma (39 años considerando que la concesión se amplíe en 2021).

*La modificación de la concesión para incorporar el servicio de atención diurna durante el plazo restante de la misma asciende a **2.106.000,00 €**. Sumado este importe al de las modificaciones ya realizadas, resulta un importe total de **21.222.521,12 €**, es decir, un*



8,95 % del precio inicial.

Por lo tanto, las modificaciones realizadas en su conjunto, incluida la modificación pendiente de realizar, **no requieren de dictamen de la COJUA** por no suponer una variación sobre el precio primitivo del contrato superior al 20 %.

Las modificaciones realizadas en su conjunto, y a la que se prevé realizar, **tampoco requerirían del informe de contenido presupuestario**, por no superar el 10 % del precio primitivo, aunque éste es superior al 20% de los recursos ordinarios del Ayuntamiento (5.475.039,00 €, sobre el presupuesto total para 2020 de 27.375.195,00 €, siendo esta cantidad la referencia y no la de 6.010.121,04 €).

Además, tal y como se ha expuesto, **el precio primitivo del contrato podría ser algo mayor** ya que no se han incluido algunos de los servicios que son parte de la concesión, con lo que el peso de los modificados sobre el precio primitivo del contrato sería ligeramente menor.

Por otro lado, a efectos de los **porcentajes máximos** para realizar modificados establecidos en las normativas posteriores a la ley que rige la concesión, se observa lo siguiente:

- El conjunto de las modificaciones realizadas **no superaría el límite establecido en el RDLeg. 3/2011** (10 % del precio inicial), y hay que tener en cuenta que si se incluyeran los ingresos por servicios complementarios en el cálculo del precio, el efecto de las modificaciones disminuiría.
- De cara a la modificación para añadir el servicio de atención diurna y los límites previstos en la Ley 9/2017:
 - **No se superaría el porcentaje máximo del 20 % del precio del contrato para modificaciones previstas en los pliegos de la Ley 9/2017.**
 - La modificación para incluir el servicio de atención diurna **no se podría considerar como no sustancial** ya que, aunque no se superaría el límite del 10% del precio del contrato, el importe conjunto de las modificaciones **superaría el importe del umbral de concesiones SARA** (Sujetas A Regulación Armonizada).
 - Si se encajara como un supuesto de **modificación por servicio adicional**, la **modificación estaría permitida** ya que las modificaciones en su conjunto **no superarían el porcentaje del 50 % del precio del contrato.**

Hogeigarrena.- Horiek horrela, eta AGEM enpresak egindako azterketaren irizpideak hasieran udal Idazkaritza Azpisailak emandako irizpidea bermatzen duenez, Gizarte Zerbitzuetako Saileko arduradunak 2021eko apirilaren 27an emakida-kontratua aldatzeko proposamena jasotzen duen txosten-teknikoa igorri zuen; bertan, hau jasotzen da modu laburrean:

(...)

Aipatutako dekretuan jasotzen denez, zerbitzu horren bidez egunean zehar erabiltzeko gailu bat ezartzean da, pertsona horiei arreta emateko premia espezifikoeekin lotutako intentsitate txikiko laguntza eskaintzen duena, erabiltzaileek beren autonomiari eusten



laguntzeko eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen laguntzeko xedea hartuta; halaber, sortzen diren isolamendu-egoerak konpentsatuz.

Tolosako Udalaren arreta-ibilbidean, 2009. urtetik hasita eskaini izan zaie zerbitzua adineko pertsoneri, beren autonomia mailari eusteko xedearekin, mendekotasun-egoerak ekidin edo atzeratzeko laguntza eskainiz eta taldearen babesa eskainiz bakardade edo isolamendu egoeretarako aukera berriak eskainiz.

(...) zerbitzuaren balorazio ona eta mendekotasunaren arrisku egoeran dauden pertsonekin autonomia sustatzerakoan duen eraginkortasuna, eta beraz, berretsi zen zerbitzu hau modu egonkorrean eskaintzearen interesa. (...)

Beraz, Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Sailetik, berriz ere adierazten dugu adineko pertsonen beharrak eta egoera aztertuta, eta indarrean dagoen arautegiak bide emanda, Tolosako herritarren interesekoa dela adineko pertsonentzako Eguneko Arreta Zerbitzua eskaintzeko beharrezko egitura sortzea. Eta egitura horiek sortzeko komunitatean dauden aukerak aztertuta ondorioztatu da zerbitzu honetan parte hartuko duten adineko pertsonen eta beren zaintzaile eta senitartekoen beharrak erantzuteko Tolosako Udalak duen modurik egokiena eta eraginkorrena dela Uzturre Asistentzia gunean txertatzea zerbitzua.

(...)

Zerbitzua abian jarri denetik Uzturre Asistentzia Guneak eskaini duen zerbitzua profesionala eta teknikoki egokia izan dela jaso izan da Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Departamentuan, eta gizarte ongizatearen ikuspuntutik beharrezkoa, eta herritarren interes orokorrekoa dela irizten da.

Aztertzen ari garen gaiari dagokionean, kontuan izan behar da Eguneko Arreta Zerbitzuak erabateko zerikusia duela emakida honen xedearekin.

(...)

Hori guztia kontuan izanik, honen bidez **proposatzen da aldatzea Tolosako Udalak Uzturre Asistentzia Gunearekin daukan emakida-kontratua, mendekotasun-arriskuan edo mendekotasun-arineko egoeran dauden adineko pertsoneri zuzendutako Eguneko Arreta Zerbitzua eskaini dezan.**

Zerbitzu hori antolatzerako eta eskaintzeko kontuan izan beharreko **esparru-teknikoa** ondokoa izango da:

LEHENENGOA: Kontratu aldaketa honen xedea izango da, Tolosako udalerrian mendekotasun-arriskuan edo mendekotasun-arineko egoeran dauden "Adineko pertsonentzat Eguneko Arretarako Zerbitzua" eskaintzea Uzturre Asistentzia Gunean, Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamentuarekin lankidetzan eta bere ikuskaritzapean emango dena.

BIGARRENA: Zerbitzu honen bidez lagunduko zaie adineko pertsoneri beren autonomia mailari eusten eta ohiko bizi-ingurunean jarraitzen eta gizarteratzen, isolamendu-egoerak konpentsatuz. Horretarako, honako prestazio hauek eskainiko zaizkie erabiltzaileei:

a) Informazioa.

b) Jarraipen-balioespena.

c) Gizarte- eta hezkuntza-arloko eta arlo psikosozialeko esku-hartzea:

– Estimulazioa edo errehabilitazioa lantzeko esku-hartzea: trebetasunen garapena:



eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko gaitasunak estimulatzeko jarduerak (teknologia berriek ematen dituzten aukerak baliatuaz) eta ariketa sinpleak.

– Hezitzailea: aisia, hezkuntza- eta kultura-jarduerak.

d) Lagun egite soziala.

e) Garraio egokitua, hala badagokio.

HIRUGARRENA: Esku-hartzea, orokorrean, taldeko jarduera bidez garatuko bada ere, oinarrizko taldekide bakoitzaren beharrak egongo dira. Banakako jarraipena egingo zaio parte-hartzaile bakoitzari.

Esku-hartzea behar edo egoera anitzetara egokitzea errazteko talde modalitate desberdinak egongo dira aukeran: “Saioak egunero”, “Astean bi saio”, edo “Astean saio bat”. (ikus jarraian dagoen taula talde bakoitzaren xehetasunekin).

Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Departamentuak erabakiko du talde horiek noiz sortu eta noiz desegingo diren, beti ere jasotzen diren eskaerak eta aurreikusita dagoen diru kantitatea kontuan hartuz.

Dena den, “Saioak Egunero” talde bat eta “Astean bi saio” talde batek modu iraunkorrean funtzionatuko dutela aurreikusten da, beti ere espresuki kontraktorik erabakitzen ez badu dagokion organoak.

Aktibatuta dauden taldeen eta burutu diren saio-kopuruaren arabera ordainketak egingo zaizkio zerbitzu-emaileari.

LAUGARRENA: Eguneko Arreta Zerbitzua honako talde-modalitateez eta garraio-zerbitzuaz osatuko da, bakoitzerako zehazten diren baldintzapean:

A Modalitatea: SAIOAK EGUNERO

Taldearen Ezaugarriak:

-10-14 pertsonako taldeak

-70 urte edo gehiago

- Mendekotasun-egoeraren 1. graduan, MBB 25-39ra bitarteko puntuazioarekin.

Salbuespenak: (beti ere taldean plazak libre egonez gero eta erreferentziatzko gizarte langilearen oniritziarekin)

- Mendekotasun-arriskuan, MBB 0-25 puntu edo baloraziorik gabeko autonomiadunak.

- Mendekotasun-egoeraren 1. graduan, MBB 40-49ra bitarteko puntuazioarekin, aurrez parte hartzen ari badira eta baliabide egokiagoren bat bideratu artean.

Zerbitzuaren intentsitatea:

-Astean 5 egunez, jai egunetan ezik.

-3 orduko arreta zuzena eta 30 minutuko prestaketa saioko

Zerbitzuaren kostua:

125 € saioko

Gehienez 32.500 € urteko (astean 5 saio x 52 aste)

Erabiltzaileek egin beharreko ekarpena:

10 €/hilean (0,50 € saioko)



B Modalitatea: ASTEAN BI SAIO

Taldearen Ezaugarriak:

-10-14 pertsonako taldeak

-70 urte edo gehiago

- Mendekotasun-arriskuan, MBB 0-25 puntu edo baloraziorik gabeko autonomiadunak.

Salbuespenak: (beti ere taldean plazak libre egonez gero eta erreferentziatzko gizarte langilearen oniritziarekin)

- Mendekotasun-egoeraren 1. graduan, MBB 25-39ra bitarteko puntuazioarekin, beti ere taldean plazak libre egonez gero.

- Mendekotasun-egoeraren 1. graduan, MBB 40-49ra bitarteko puntuazioarekin, aurrez parte hartzen ari badira eta baliabide egokiagoren bat bideratu artean.

Zerbitzuaren intentsitatea:

-Astean 2 egunez, jai egunetan ezik.

-3 orduko arreta zuzena eta 30 minutuko prestaketa saioko

Zerbitzuaren kostua:

130 € saioko

Gehienez 13.520 € urteko (astean 2 saio x 52 aste)

Erabiltzaileek egin beharreko ekarpena:

6 €/hilean (0,75 € saioko)

C Modalitatea: ASTEAN SAIO BAT

Taldearen Ezaugarriak:

-8-14 pertsonako taldeak

-Erdigunetik aldentuta dauden auzuneetako biztanleak

-60 urte edo gehiago

- Mendekotasun-arriskuan, MBB 0-25 puntu edo baloraziorik gabeko autonomiadunak.

Salbuespenak: (beti ere taldean plazak libre egonez gero eta erreferentziatzko gizarte langilearen oniritziarekin)

- Mendekotasun-egoeraren 1. graduan, MBB 25-39ra bitarteko puntuazioarekin, beti ere taldean plazak libre egonez gero.

- Mendekotasun-egoeraren 1. graduan, MBB 40-49ra bitarteko puntuazioarekin, aurrez parte hartzen ari badira eta baliabide egokiagoren bat bideratu artean.

Zerbitzuaren intentsitatea:

-Astean behin, jai egunetan ezik.

-3 orduko arreta zuzena eta 60 minutuko desplazamentu-prestaketa saioko

Zerbitzuaren kostua:

155 € saioko

8.440€ urteko

Erabiltzaileek egin beharreko ekarpena:

4 €/hilean (1 € saioko)

BOSGARRENA: Zerbitzuaren eskaerak Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Sailean



izapidetuko dira, eta taldea osatutakoan berri emango zaio Uzturre Asistentzia Guneari, zerbitzua abian jarri dezan.

Erreferentziazko gizarte langileak parte-hartzaile bakoitzari dagokion oinarritzko informazioa emango dio Uzturre Asistentzia Guneko Eguneko Arreta Zerbitzuaren arduradunari (aurrekariak, osasun egoera, esku-hartzearen plana).

Behin taldea aktibatzen denean, Uzturre Asistentzia Guneak ikasturte osoko egutegia proposatuko du, eta hori ontzat emango da Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Sailean.

Taldea aktibatzen denetik aurrera, bi hilabeteroko maiztasunarekin berri emango dio Eguneko Arreta Zerbitzuaren arduradunak Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Saileko erreferentziazko gizarte langileari, bai talde osoaren garapenari dagokionean, eta baita parte-hartzaile bakoitzaren eboluzioaren inguruan ere.

SEIGARRENA: Zerbitzua indarrean egongo da Uzturre Asistentzia Gunearen emakida-kontratuaren indarraldian, beti ere dagokion organoak kontrakoa erabakitzen ez badu.

ZAZPIGARRENA: Emakidaren baitan eskaintzen diren zerbitzuekin egiten den moduan, prezio eta tarifa hauek ere eguneratzeko aukera izango da, horretarako adostuta dagoen prozeduraren baitan.

ZORTZIGARRENA: Taldeak aktibatzeko, ezinbestekoa izango da aurrekontuaren partidan nahikoa diru izatea. Tolosako Udalak egin beharreko ordainketak urte bakoitzeko udal aurrekontuko 0500.227.04.231.00 partidaren kargura egingo dira.

BEDERATZIGARRENA: Zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzak dagokion ekarpen ekonomikoa egin beharko du. Ekarpen hori aurrez zehaztutakoaren arabera izango da (goiko taulan zehaztutakoa), eta Tolosako Udalak bere gain hartuko du zerbitzuaren kostua osatzeko falta den kopurua.

Horretarako, Uzturre Asistentzia Guneak dagokion ordainagiria bideratuko dio Tolosako Udalari, eta Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Sailak jasotako ordainagiriei onespena emango die, Tolosako Udalak ordainketak egin ditzan.

Ordainagiri horretan zehatz jaso beharko du hilabete bakoitzean emandako zerbitzuak (talde bakoitzaren saioa edota garraioa), saioetan parte hartu dutenen zerrenda, erabiltzaile bakoitza egindako diru-ekarpena, eta Udalak ordaindu behar duen diferentzia.

Komeni bada, kontratu hau aldatzeko eskatuko dira kaudimen ekonomiko eta teknikoak egiaztatzeko beharrezko diren aitortpenak edo adierazpenak, Kontratuaren Legean aurreikusten denari jarraiki.

III.- ARAUBIDE JURIDIKOA

1.- Aplikatu beharreko legeria

Beharrezkoak ez diren errepikapenak saihestearren, kontratazio teknikariak, udal idazkariaren oniritziarekin, 2019ko urriaren 1ean egindako lege-txostena, lehen ere aipatua, hartuko da oinarri.

